

noaia

**Urriak 24, Liburutegiaren
Eguna**

**80 urte bete dituztenak
omendu dituzte**

**Atzegi elkarteak
#HorrelaDaNireBizitza
kanpaina abiarazi du**



Xabier Arregi alkatearen lehen 100 egunak

**“Legealdi osorako gobernu
programa ari garaosatzen”**

PAUMA



Lifefactoryko kristalezko
ur-botilak eta biberoiak
Usurbilgo Pauman
aurkituko dituzu!

 **lifefactory**



NAGUSIA 10, USURBIL

IREKIERA

ETXETXO LORATEGIA



Santu guztien eguna

Erramuak, zentruak eta landaretan
aukera zabala hemen aurkituko duzu.

Egun osoan zehar zabalik!

ZUBIETA

Lehenengo 6
erosleentzako,
garaje bikoitza
banakako
prezioan!

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

188.000 € *tik*



12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpi_n

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1^o Behea
20009 Donostia

E.: contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com



Albisteak iruditan

Gattunk Denda, biluzik

Aurreko ostiral goizean, husten eta txukuntzen ari ziren, azken urtean #Kilometroak15 ekimenaren aldeko erreferentzia gune nagusietakoa izan dena; bezeroen joan etorriak etenik izan ez duen Gattunk Denda. Boluntario taldeko hainbat kideek "biluztu" zuten orain arte apain asko egon den saltokia. Azken bi asteotan merkealdietan izan ondoren, saldu beharrekoa salduta dago jada, Zumetaren serigrafiak izan ezik. Oraindik eskuragarri dardede. Erosi nahi duenak ordea, Udarregi Ikastolara gerturatu beharko du. Gattunk Denda itxi dute eta, orain bai, betiko.

KMK15-en aldeko zozketak

Gure Zozketa:

- Zenbaki saritua: 51.855.
- Ordezko zenbakia: 2.689.

Kariberako bidaia:

- Zenbaki saritua: 9.140.
- Ordezko zenbakia: 7.597.



Azken egun hauetan "merkealdietan" izan da Gattunk denda. Jose Luis Zumetaren serigrafia dute eskuartean. Denda itxita dago baina artelana eskuragarri dago oraindik Udarregi Ikastolan.

Laburrean

1973an jaioetakoen kinto bazkaria

Urriaren 24an ospatuko dute Atxega jauregian, 14:30ean. "Nahi duenak, hamaiketakoak izango du Bordatxon, 12:30ak aldera". Bazkaritarako izen emateko deitu 616 436 961 edo idatzi usurbil73@gmail.com. "Animatu!", luzatu dute gonbita antolatzaileek.

1972an jaioetakoen kinto bazkaria

Azaroaren 21ean batuko dira, Aratz jatetxean. Izen emateko 40 euroko ordainketa egin behar da kontu zenbaki honetan, azaroaren 13a baino lehen: 0182 6043 21 0201514132 (BBVA). Ordainketa egiterakoan ez ahaztu izen abizenak adierazteaz.

1952an jaioetakoen kinto bazkaria

Azaroaren 29an bilduko dira Patri jatetxean, arratsaldeko 14:00etan. Dastatuko duten otorduaren prezioa, 36 eurokoa izango da. Izen emateko epea zabalik egongo da, azaroaren 19ra arte. Apuntatzeko deitu 943 361 380 telefono zenbakira.

noa

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noa.eus /// www.noa.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan



Usurbilgo Udal



Euskal presoak



Euskal Herrira!

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordintzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noa.eus
Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,
erredakzioa@noa.eus:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
Banaketa: Olatz Rezola,
Arantxa Zulaika.
Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainara
Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiet, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldia,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon
Etxabe, Alazne Begiristain, Denis
Elortza, Pello Aranburu, Xabier
Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-
nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen
Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta
Udarregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Ilazki Gaintza

Musikaz gozatuz

"Festetan nago ta tabernara eguneroko bisita altabozetan regetoia da ia topera jarrita. (bis) Jendea lasai ari da dantzan gerria tita ta tita neri min pixkat egin dit baina nagonez festan hasita hau da betiko kritika hauxe delako eguneroko gure fondoko musika. (bis)"

Gazte-gaztetan hasi ginen ta festa giroa gaurdaino musika honek blaitu ohi gaitu ta tabernan zenbat laino. (bis) Ondo pasatzen egiten dugu guztiok nahiko enpeino kexatuz gero esaten dute "Ez izan marmarti ñaño!" ta ze geratzen den joño normalizatu egin dugula ia ez entzuteraino. (bis)"

Musikak sarri jarri ohi gaitu abusuaren norantzan baina halere irteten gera juergarako esperantzan. (bis) Ipurdia ukitzen digute erdi broman erdi txantxan eta gainera kejatuz gero parre bat bueltan ta tatxan. Kejatu, ez egon zalantzan ea behingoan hasi gaitzkeen geure erritmora dantzan. (bis)"

Uxue Alberdik abuztuan botatako bertsoa da artikuluari hasiera ematen diona. Askotan pentsatu izan dut berak dioenaren inguruan eta hemen islatzea egokia iruditu zait denon artean hausnar dezagun. Taberna berean letra iraingarriak dituzten abestiak eta "Taberna honetan ez da eraso sexistarik onartzen" kartela ikusten dugunean zer egin dezakegu? Zer pentsatzen duzue zuek? Tontakeri bat dela? Inkoherentzi honi buelta eman behar diogula denon artean?

Denok jakin badakigu benetan zai-

la dela esaten eta egiten dugunaren arteko oreka mantentzea, baina inkoherentzia handiegia onartzen ditugu eta hau da horietako bat. Gai honetaz hitz egin izan dudanean lagun edota ezagunekin esan izan didate esajeratu egiten dudala, ez dela hainbesteko, "azken finean, ondo pasatzen ari zara parrandan, ez duzu letretan erreparatzen". Baina, nola ezetz? Denok bukatzen dugu udako abesti guztien letrak kantatzen gaueko ordu txikitan.

Musika oso harrimanta boteretsua da: injustiziak salatzeke, hiritar eta herritarrak kontzientziatzeko eta diktaduretan herrialde osoa manipulatzeke ere erabili izan ohi da. Matxismoari aurre egin nahi badugu, ez da nahikoa tratatu txarren aurka egotea. Hori, espero dezagun, gutako inork ez onartzea. Baina inor jotzera iritsi aurretik ere, emakumeen gutxiestea azaleratzen duten jarrera eta ekintza ugari daude, egunerokotasunetik desagertu egin behar direnak jendarte parekide bat

lortu nahi badugu behintzat. "Esajeratu" hitza erabiltzeari utzi behar diogu gai hauetan, eta benetako aldaketan parte hartu. Txikiak iruditzen zaizkigun inkoherentzia horietan oinarritzen baita gerora bortitzagoak diren jarrera matxis-tak.

Musika estilo ugari daude, eta musika taldeak zer esanik ez. Parrandako giroa jartzeko egokiak diren euskal talde eta atzerriko talde mordoa daude, beren letretan inor gutxiesten ez dutenak. Hasiera batean tabernarietaz "esfortzua" eman dezakeen arren, hainbeste goraiatzen dugun koherentzia horren aldeko "esfortzua" da. Kartelean zerbait jartzen badugu, gure jarrerak ere hori adieraz dezatela. Jendarte parekide bateranzko "esfortzua" izango da eta horretan denok parte hartu behar dugu: inkoherentziak salatuz eta gure erritmora dantzatzuz. "Ezin badut dantzatu, ez da nire iraultza", Emma Goldman.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Nerea Zinkunegi | Maialen Unanue | Joxe Piñas | **Ilazki Gaintza** | Idoia Torregerai | Luis Aranalde

Sutegi udal liburutegiko txokoa

Urriak 24, Liburutegiaren Eguna

Urriaren 24an larunbata, Liburutegiaren Eguna! Liburutegiak (eta liburuteginak) literaturan eta zinean erakusketak abian jarriko dugu Sutegi Udal Liburutegian (azaroaren 7a arte iraungo du), eta Udal Liburutegira gerturatzen direnentzat izango da sorpresatxoren bat. Zer izango ote da?

Urriak 28an, asteazkena, arratsaldeko 6etan, HH4ko haurrentzat, lehen ipuin kontaketa Sutegi Udal Liburutegian. Kontalari gonbidatua, Miriam Mendoza aparta izango da!



Urriak 29an, osteguna, arratsaldeko 7etan, Sutegi Udal Liburutegian, VI. Euskarazko literatura topaketa: Garazi Kamioren "Orube abandonatuak" komentatuko dugu, idazlea bertan izango delarik. Liburuak



jada eskuragarri daude Liburutegian.

Liburutegia non? Irazu 14 kalean

■ Sarean: Bloga:

<http://liburutegiak.blog.euskadi.net/usurbil/>

■ Twitter: @usurbib

■ Facebook: Usurbilgo Sutegi Udal Liburutegia.

■ NoaUA! Komunitatea: Sutegi Udal Liburutegia.

■ App: Liburutegiak.




Saritu berria, NOAUA! Kultur Elkarteko bazkide izateagatik

Esker ona adierazi nahi dizuegu beste behin, proiektu honek aurrera egin dezan, zuen babesa eta laguntza eskaintzen segitzen duzuen NOAUA! Kultur Elkarteko bazkide guztioi. Eskertza, oraingoan ere sariak banatuz egin nahi dugu.

Debako Aisia Hotelean, 2 lagunentzako zirkuitu termala zozketatu berri dugu, NOAUA!ko bazkideon artean. Onuraduna, Patxi Azpiroz herritarra izan da. Zorionak Patxi!

Egin zaitez bazkide

Halako sari ederrak tokatzea nahi baduzu, ez utzi biharko; egin zaitez NOAUA! K.E.-ko bazkide! Di-da batean tramitatuko dizugu. Orain bazkide egiten bazara gainera, opari eder bat jasoko duzu eta egin berri duguna bezalako zozketetan parte hartzeko aukera izango duzu. Bazkidetza; urtean 36 euro soilik. Ar-



Zozketan, Debako Aisian birentzat zirkuitu termala tokatu zaio Patxi Azpirotzi.

gibide gehiagorako edota bazkidetza tramitatzeko, etorri NOAUA! K.E.-ko egoitzara. Bestela deitu 943 360 321 telefono zenbakira edo idatzi elkar-tea@noaua.eus helbidera.

Kulturaldia ate joka

NOAUA! Kultur Elkartean txan-

da azaroan. Azaroko lehen bi asteburu bueltan ospatuko dugu 2015eko Kulturaldia. Aurreko edizioen ildotik, formatu eta eduki ezberdinetako ekitaldi eskaintza prestatu dizuegu. Ekitaldien berri zehatzago, hurrengo astekarian.

Ika-mika

EAJren gutunari erantzuna

EAJren udal-taldeak zalan-tzan jarri zuen udal-gobernuaren izaera demokratikoa, NOAUA!ira bidalitako eskutitzean. Baieztapen zentzugabe horri erantzun nahi diogu, orain artean gertatutakoa puntuz puntu azalduta.

1. EHBilduk EAJri gobernu-ardurak partekatze eskaintza egin zion, gehiengo absolutua eduki arren. EAJk ezetz esan zuen, oposizioan aritzea nahiago zuela argudiatuz. Zilegi da, dudarik gabe. Hala ere, elkarriketaren bidetik jarraitu genuen, ahal zen neurrian adostasunak bilatzuz.

2. Elkarriketa horietan, librazioarekin batera, alderdiei egiten zaien ekarpena eta batzarretara bertaratzeko dietak birplanteatze-

ko eskatu ziguten. Hiru bilera egin genituen elkarren ikuspegiak mahai gainean jarri eta adostasunak bilatzeko. Ikuspegi desberdinak genituen eta adostasun partziala lortu genuen, dieten eta alderdiei egiten zaien ekarpenen euren proposamena ontzat eman eta udalbatzarrerara eramane genuen bertan onartuaz. EAJk, puntu horretan, alde bozkatu zuen.

3. Ordainsariei dagokionez, hauek EHBilduk jarritako irizpidearen baitan onartu dira:

a) Orain arteko edo aurreko lanpostuko ordainsaria mantentzea (alkatearen kasuan, hau lehen Unibertsitate publikoko irakasle-ikerlaria zelarik).

b) EHBILDUKO hautetsion soldatak bateratuak izatea; hau da, hileko 1.870 euroko soldata kobratzea jar-

dun osoko ordezkarien kasuan.

4. Elkarlanerako proposamena egin diegu bai EAJri bai PSOeri. Sinesten dugu politika egiteko modu berriak landu behar ditugula, eta Usurbilen zintzo saiatu behar dugula horretan, herriaren onerako. Uste genuen arteko harreman sana gailentzen zitzaiola alderdien arteko lehia edo alderdien interesen gainetik.

5. Giro horretan, erabat harritu gaitu EAJren eskutitzak. Elkarlanerako eskaintza egin diegu, baina zoritxarrez, konfrontazioaren bidea aukeratu dute. EAJri ez diogu aitortzen legitimaterik diru publikoarekin egiten dugun kudeaketa zalantzan jartzeko. Pena. Etsigarria.

Usurbilgo EHBildu

Langile bat hil da Atalluko enpresa batean

Astelehen arratsaldeko 16:30ean gertatu zen ezbeharra, Atallu industriaguneko enpresa batean. Langile autonomo bat, pabilioi batean lan batzuk egiteko jarri zuen aldamiotatik behera erori eta hil egin zen. Zumarrago 56 urteko gizonezkoa da hildakoa.

"Prekarietatea, hitzailea"

LAB sindikatuak, sare sozialen bidez, prekarietate egoera salatu zuen: "Langile bat hil da Usurbilen, aldamiotik erorita. Ez da zorte txarra. #PrekarietateaHiltzailea", halaxe zioen twitterren.

Deialdia Andatzpe elkarteko bazkideei

Andatzpeko bazkide talde batek, iganderako elkartean deitu duten bozketaren harira honako idatzia igorri digute. "Andatzpeko bazkide zaren horri, urriaren 25erako zuzendaritzak deitu duen bozketan ez parte hartzeko eskatzen dizugu. Estatutuen aurka doalako. Andatzpe elkarteko estatutuen arabera, teoriarik, edozein pertsona izan liteke bazkide, baina praktikan eskubide hau ez da errespetatzen eta emakumei orain arte ez zaie utzi bazkide izaten.

2 bazkidek, bazkidetza beraiei emazteari pasatzea eskatu zuten urte hasieran eta zuzendaritzak ez du erantzunik eman, geroztik eginiko antzeko beste hainbat eskaera onartu dituen epe berean, inongo bozketarik egin gabe. Noski, beste eskaeretan bazkide berriak ere gizonezkoak ziren...

Egoera honen aurrean ezo-hiko batzar baterako deialdia egiteko sinadura bilketa egingo dugu, bozketa deitu duten egun eta ordu berean, hau da, urriaren 25ean goizeko 11:00etatik 13:00ak bitarte, Andatzpen bertan. Eskubideak ez dira bozkatzeko!

Xabier Arregi: “Lanerako prestutasun handia sumatu dut eta horrek erraztu du nabarmen nire egokitzapena”

Goizero, etxetik atera eta unibertsitatara abiatzen zen. Baina azkar ohitzen da bat joera berrietara. Alkate izateak bizitza aldatu dio baina ohitzen hasia da. “Oso lan giro ona topatu dut udal-txean. Bai langileen aldetik eta baita herritarren aldetik ere”. Lehen 100 egunen aitzakiarekin, luze zabal aritu gara Xabier Arregi alkatearekin hizketan.

NOAUA! 100 egun pasa dira alkatetzara iritsi zinenetik. Nola joan da egokitze-prozesua?

Xabier Arregi. Hasiera guztiak dira egokitzeko zailak. Baina egia da unibertsitatetik, nire aurreko lantokitik etorri nintzenean oso lan giro ona topatu nuela hemen. Bai langileen aldetik eta baita herritarren aldetik ere. Laguntza handia. Lanerako prestutasun handia sumatu dut eta horrek erraztu du nabarmen nire egokitzapena.

Hautetsi taldearen aldetik ere oso jarrera egokia topatu dut eta, orain, nire kezka nagusia da ia jaso dudana babes horri guztiari behar den bezala erantzuteko gai izango naizen.

N. Eta udaletxean bertan, zer nolako giroa sumatu duzu langile eta teknikarien artean?



100 egun egin ditu alkatetzan eta bere bulegoan egin dizkigu adierazpenok.

XABIER ARREGI

“Gure lana ez da hutsetik abiatu.

Aurreko legealdietan egin den lana hor dago. Horrek oinarri sendo bat markatu du, norabide garbi bat”

X. A. Oso harrera egokia. Usurbilgo Udaletxean, esate baterako, giro oso ona topatu dut, eta kalitate handiko lan-taldea. Udalak duen aktibo handienetakoa hori da, giza kapitala. Berezkoa. Usurbilgo Udalak azpikontratatu baino, bertako langileekin egiten du lan eta horrek berezitasun nabarmen

bat ematen dio, inguruko herri askotan estimatzen dena. Herri askok eredutzat hartzen dute Usurbil.

N. Kudeaketa alorrean ere egin duzu denbora bat. Epe honetan, zerk harritu zaitu onerako? Eta zerk txarrerako?

X. A. Gure lana ez da hutsetik abiatu. Aurreko legealdietan egin den lana hor dago. Horrek oinarri sendo bat markatu du, norabide garbi bat. Herri proiektu bat diseinatuta dago orain baino lehen ere, eta horregatik guretzat ez da hain lan zaila lehendik abiatutako bide horri eustea. Langileen aldetik babes handia jaso dut eta horrek ere erraztu ditu gauzak. Hori al-

derdi positiboen artean jarriko nuke.

Txarrenen artean: udal baten funtzionatzeko modu batzuk ditu, jarraitu beharreko protokoloak, eta horiek batzuetan gestio aldetik astunak gertatzen dira eta geldotasuna ekartzen dute. Zailtasun hori topatu dut.

Bestalde, esan behar da udal baten kudeaketan badirela hainbat faktore zure esku ez daudenak, eta horrek zailtzen du zuk egingo zenukeena. Orohar esan daiteke Udalak lan egiteko aukera asko ematen dituela, baina aldi berean muga asko ditu, muga politikoak, ekonomikoak, etikoak, kudeaketa arlokoak... Eta horrek ekartzen du herritarren eskaerei nahiko zenukeen bezala ez erantzutea. Ahal duzun borondate onena jarrita ere, gogorra da ikustea ez zarela gai zenbait eskaerari behar den bezala erantzuteko. Horrek suposatzen duen frustrazioa jarriko nuke alde txarrean. Bereziki gogorra egiten da zenbait kasuetan arautegien eta abarren segimendua eginez eta aplikatuz, zigor espedienteak eta horrelako neurriak hartzea; hori bereziki gogorra egin zait.

“Bestelako alternatibak badirela erakutsiz, posible izango dugu errauste-planta proiektuari behin betiko ezetz esatea”

Errausketa planta egin egingo dela dio Foru Aldundiak. Kilometroak 2015 eguneko irekiera ekitaldian, zeharka aipatu zenuen gaia. Markel Olanorekin hitz egiteko edo bilera bat zehazteko aukera izan al zenuen?

Aipamen hori egin nuen, neurri batean, herri mandatu bat neukalako hori aipatzeko. Nire presentzia ekitaldi horretan justifikatuta zegoen herriaren zerbitzura dagoen pertsona nai-

zen neurrian. Beraz, herriaren kezka nagusi baten bozeramale izateko beharra sentitu nuen. Horregatik aipatu nuen errauste-plantaren auzia. Egia da banuela egun horretan bertan Markel Olanori bilera eskaera eskura emateko asmoa, baina ustekabea joan egin zen eta ez zidan aukera hori eman, eskaera eskura emateko aukera. Momentuz hitzordurik ez dago, eta espero dut luze baino lehen

bilera hori egiteko aukera izango dugula.

Hala ere, gai honen harira zera esan nahi nuke, une honetan zabaldu den mezua da errauste planta ia egintzat ematea. Diputazioak ahalegin berezia egin du proiektua egin egingo dela esateko. Eta legealdi honetan egingo dela esateko. Baina nik uste dut ez dela hain ebidentea eta presio sozialaren bidez, eta orain

arte segi dugun bideari tinko eutsiz, bestelako alternatibak badirela erakutsiz, nik uste dut posible izango dugula errauste plantaren proiektuari behin betiko ezetz esatea. Aukera hori egon badago. Bizirik dagoela uste dut. Usurbilek, inguruko herriek eta Gipuzkoa osoak emango duen erantzunarekin, proiektua bertan behera geratuko dela azkenean.

“Legealdi honen hasieratik perspektiba luzeagoko plan bat proposatu nahi dugu”



Legealdi osorako programa ari dira lantzen une honetan.

NOAUA! Datorren urteko aurrekontuak prestatzeko garaia da. Zeintzuk izango dira irizpide nagusiak? Eta inbertsioetan, zeintzuk izango dira Udalak sustatuko dituen egitasmo potoloenak?

Xabier Arregi. Legealdi honetako lehenengo udal aurrekontuak izango dira. Baina legealdi honen hasieratik perspektiba luzeagoko plan bat planteatu nahi dugu. Une honetan gure legealdiko gobernu programa osatzen ari gara. Horretarako, kanpoko aholkularitza batekin prozesu bat dugu abiatuta. Bertako udal langileekin batera lanketa bat egiten ari gara, eta gure asmoa da lanketa hori herritarrekin ere partekatzea. Lau urteko programa bat antolatu nahi dugu eta lau urteko programa horrek hiru zutabe nagusi izango ditu:

1- Lurralde antolaketa. Gure Plan Orokorra izango denaren lanketan gaude bete-betean. Usurbilen etorkizunari begira zer nolako herri antolaketa izango duen jasoko du.

2- Gure jarduera ekonomikoa indartu behar da. Bertako merkataritza sustatzeko, poligono industrialetan degrada-

UDAL AURREKONTUAK

Legealdi osorako gobernu programa ari gara osatzen. Bertako udal langileekin batera lanketa bat egiten ari gara, eta gure asmoa da lanketa hori herritarrekin ere egitea”

tutako lurrak berrerabiltzeko, turismoari edo bestelako aktibitateei toki egiteko, ibaiari bestelako jarduera eta erabilpen jasangarriagoa emateko...

3- Gizarte arloan, baloreak indartzea. Arlo ezberdinetan egindakoa berretsi eta indartu nahi dugu.

Hiru zutabe nagusi horiek izango ditugu legealdi osoan, eta horiek aurrera eramateko herritarrekin eta udal langileekin elkarlanean oinarritutako eredu bat planteatzen ari gara. 2016ko aurrekontua, hortaz, lau urteotarako abiatuko dugun egitasmoaren lehen geltokia izango da. Eta horretan oinarrituta zehaztuko ditugu aktuazio konkrituagoak. Lanketa bete-betean gaude

oraintxe bertan.

2016ko inbertsioak zeintzuk izango diren esatera ez naiz ausartzen, nahiko genukeelako horiek kontraste baten emaitza izatea. Herritarrek eta gainerako eragileek ere izango dute zeresana eta horregatik ez litzateke egokia izango orain nik esatea zertan inbertitutako dugun edo zein izango den gure inbertsio nagusia.

Ugartondoko etxebizitzet:

“Lanean ari gara”

NOAUA! Ugartondoko etxebizitza proiektua zertan da?

Xabier Arregi. Lanean ari gara. Egin ditugu bilera batzuk promotoreekin. Gure asmoa bada hori aurrera ateratzea. Alegazio batzuk izan ziren bere garaian, eta horrek proiektuaren berrikuspina ekarri du. Korapilo tekniko horiei irteera ematen ari gara une honetan. Gaia bete-betean lantzen ari gara.

Nik esperantza badaukat, aurren ez bada hurrengo urtean behin betiko aktibatuko dela Ugartondoko egitasmoa.

“PNVk idatzitako gutuna irakurtzea etsigarria izan da”

NOAUA! Legealdia hasi baino ez da egin eta liberazioen harira lehen tirabirak sortu dira oposizioarekin.

Xabier Arregi. Erabat harrituta utzi gaitu NOAUA!n irakurri dugun idatzia. Esan beharra dago legealdi hasieratik eskaini geniola elkarlanerako proposamen bat: elkarriketan oinarrituriko kudeaketa, adostasunetara iristeko borondatearekin. Uste genuen giro hori nahikoa errotuta zegoela hiru alderdien artean.

Liberazioen gaian izan ezik, gainontzeko puntuetan ados jarri ginen, besteak beste, gure hasierako posizioetan malgutasuna eta borondatea erakutsi genuelako, PNVk egindako eskaeretara moldatau ginelako.

Giro horretan, nahikoa etsigarria da horrelako idatzi bat irakurtzea, elkarlanerako proposamenari konfrontazio tonu batean erantzun zaiola ikusten dugulako. Eta badirudi konfrontazioaren aldeko jarrera bat hartu nahi izan dela. Etsigarria dela dio, politika egiteko moduetan, herrietan bestelako lanketa batzuk egitea mereziko lukeela pentsatzen dudalako, beste eredu batzuen bila.

N. Zer nolako harremana dago orain udal gobernu eta oposizio taldeen artean?

X. A. Idazki horren aurretik galdera egin izan bazenit, ‘oso ona’ erantzungo nizuke. Gai konfliktiboetan edo adostu beharrekoeetan udalbatzen aurretik bilerak egin ditugu, elkarrekin komunikatzeko eta hitz egiteko ez dugu inolako arazorik izan. Ahal zen neurrian behintzat, gaiak gehiengoz baino adostasunez onartu nahi izan ditugu. Jarrera bat bazegoela uste genuen, eta jarrera hori konpartitua zela hiru alderdien aldetik. Horrek ez du kentzen gai batzuetan desadostasunak egotea. Hori zilegi da eta horrela izan behar du. Horrek ez du kentzen oposizio lana egitea. Hori ere zilegia da eta beharrezkoa gainera. Baina beti ere errespetuan oinarriturik, eta elkarlanerako tonu batean.

“Lur berriak kontsumitu baino, lur degradatuak berrerabiltzera jo behar dugu”

NOAUA! Hiria Antolatzeko Plan Orokorra izango da legealdi honetako gakoetako bat. Zeintzuk dira udal gobernutik ezarri nahi dituzuen ildo nagusiak?

Xabier Arregi. Une honetan onartuta daude aurrerakinaren irizpide orokorrak. Horiek markatzen dute Plan Orokorren oinarriak zeintzuk izango diren. Ikuspegi jasangarria izango da irizpideetako bat, horrek esan nahi du luraren erabilpen neurtu bat egingo dela. Azken hamarkadetan lurra ustiatu dugu modu oso agresiboan eta guk arrazoiz erabili nahi dugu lurra. Bestelako erabilpenak egitea posible dela uste dugu. Lur berriak kontsumitu baino, lur degradatuak berrerabiltzera jo behar dugu.

Iruditzen zaigu mugikortasun jasangarriaren alde ere jo behar dugula. Aktibitatea sustatu behar dugu baina luraren erabilera neurtu eta egoki batekin.

Hortik aurrera, plan horren idazketa-prozesua dator. Horretarako, programa bat izango dugu. Lau bat urteko iraupena izango du programak, eta bertan jasoko dira Usurbilgo lurrrak antolatzeko proposamen zehatzak.

Etxebizitzaren alorrean, adibidez, aurreko prebisioetatik behera egitea planteatzen da, modu neurtuan egitea proposatu ere. Gaur egungo errealtateari hobeto egokitzen zaion plan orokor bat egitea da gure asmoa. Modu jasangarrian, herriari bizitasuna emanez, eta espekulazioari edo gehiegizko erabilpenari neurria jarritz.

Badira ordea, udal barrutitik kanpo dauden bestelako egitasmo batzuk, lurralde antolaketak edo plan partzialak (PTP delakoak). Donostialdekoan, oso



“Gaur egungo errealtateari hobeto egokitzen zaion plan orokor bat egitea da gure asmoa, modu jasangarrian herriari bizitasuna emanez, eta espekulazioari edo gehiegizko erabilpenari neurria jarritz”.

XABIER ARREGI

“Donostialdeko Plan Partzialean 1.000 etxebizitzatik gorako aktuzio bat zehazten da hipodromoaren atzean, poligono industrial erraldoi bat (tartean kartzela, erraustegi planta), lau karriletak errepide bat Zubietatik barrena...”

Zeharo agresiboak eta txikitzaileak diren planteamenduak jasotzen dira, gure Plan Orokorrean planteatzen ditugun irizpideekin talka egiten dutenak bete-betean”

aktuzio agresiboak aurreikusten dira Zubietarentzat. Donostia barruko lurretan kokatuko lirake, baina badira Usurbilgo zatia eragiten diotenak ere.

1.000 etxebizitzatik gorako aktuzio bat planteatzen da hipodromoaren atzean, poligono industrial erraldoi bat (tartean kartzela eta erraustegi planta), lau karriletak errepide bat

planteatzen da Zubietatik barrena... Zeharo agresiboak eta txikitzaileak diren planteamenduak jasotzen dira, gure Plan Orokorrean planteatzen ditugun irizpideekin talka egiten dutenak bete-betean.

Hor badugu beste lanketa bat egiteko: guk egin nahi dugun etorkizuneko Usurbil hori ez dadin zapuztu kanpo-eragileek eskualdeari eskaini ditzakioten proposamen horiekin.

Donostialdeko Plan Partziala alegazio epean da, ezta?

Hori da. Usurbilgo Udala ari da lanketa bat egiten, eta iruditzen zaigu interesgarria dela herritarrek jakitea zer datorren lurralde antolaketak horretatik. Esan behar da jasotzen diren aktuzio horiek Donostiako Udalaren Plan Orokorrean dagoeneko jasota eta onartuta daudela, baina guri iruditzen zaigu krisiarengatik, jarduera ekonomikoak izan duen bilakaerarengatik, demografiarengatik... Momentua dela proposamen horiek berrikusteko. Hainbat aktuzio bertan behe-utzi beharko lirake.

“Pintada horiek ez ditugu ontzat ematen”

NOAUA! Hainbat pintada agertu ziren herrian. EAJ alderdiak ekintza salatzeako eskaera aurkeztu zuen azken plenoan. Gaia lasaia hitz egiteko proposamena egin zenuten zuek.

Xabier Arregi. Bildu gara euren eta jakinarazi diegu gure iritzia. Udalbatzan ere aurkeztuko da idazki hori, eta bertan esaten dugu EH Bildu erabat konprometuta dagoela bakea eta bizikidetzaren dinamikarekin, eta erabat konprometuta dagoela normalizazio politikarekin.

Ikusten dugu hainbat jarrerak ez dutela laguntzen horretan. Guk, batetik, pintada horiek ez ditugu ontzat hartzen. Bestetik, bakea eta bizikidetzaren dinamika horietan jarriera aktiboa izateko prest gaude.

Egia da PNVk eskatu zigula pintada horiek kentzea baina lokal hori pribatua da eta beste hainbat gune pribatuetan ere egin ziren pintadak. Udalak gune pribatuetan ezin ditu pintadak ezabatu, ez dagokio udalari. Aukera hau baliatu nahi genuke, ez bakarrik orain baizik eta etorkizunari begira ere, zubiak eraikitze eta dinamika positiboak abiarazteko bakea eta bizikidetzaren arloan.

“Aginagako Eskolaren jarduna normala da gaur egun”

Aginagako Eskola noiz itzuliko da normaltasunera?

Eskolako umeak eraikin horretan ari dira eskolak jasotzen. Egia da abiatutako obra horiek ez direla bukatu baina Eskolako jarduna normala da gaur egun.

Esan behar da eraikina elizaren jabetzakoa dela, eta obraren sustatzailea eliza bera dela. Udalak hasieratik egin zuena segurtasun baldintzak betetzea izan zen. Hori bermatzen saiatu zen Udala. Zorigaiztoko itogin horiek eman zirenean, saiatu ginen behar bezalako erantzuna ematen. Orohar, balio izan digu Aginagako gurasoekin hartueman estuago bat izateko.

Guretzat Aginagako Eskola oso garrantzitsua da. Gure egiten dugu Aginagako eskolaren proiektua eta gure inplikazioa erabatekoa da. Halaxe jakinarazi diegu euren izandako bileran.

80 urtekoak, omenduak



Urriaren 11n omendu zituzten, Gure Pakea elkartearen ekimenez.

Oroigarriak eskutan dituztela, irudian duzue 80 urte bete dituen usurbildar taldea.

Urriaren 11n igandearekin, omendu zituen Gure Pakea Elkartek, lagun eta senidee-

kin batera Atxega Jauregian eginiko bazkari baten bueltan. Zorionak!

Gripearen aurka txertatzeko deia

Martxan da beste urte batez, gripearen aurkako txertaketa kanpaina. Azaroaren 30era arte luzatuko da. Herritarrek A eta B gripez kutsatzea saihestu nahi da. Txertoa hartzeko deialdia bereziki, 65 urtetik gorako herritarrei, haurdun dauden emakumeei, gaixotasun kronikoren bat dutenei zuzendua dago. Baita "beren lanbideagatik arrisku-taldekoko pertsonen kutsatzaile izan daitezkeenei ere; hirurgarren adineko egoitzetako, geriatrikoetako, eguneko zentroetako eta abarretako pertsonala, bai eta etxex-etxeko laguntzarako zein zerbitzu sozialetako pertsonala ere".

Usurbilgo Udaletik, kanpainaren garrantzia azpimarratu dute. "Gripearen Aurkako Kanpaina ahalegin garrantzitsua da, bai instituzioentzat, bai kanpaina aurrera eramaten duten osasun-taldeentzat. Eta egiten ditugun kanpainetan



Txertoa hartzeko deialdia 65 urtetik gorako herritarrei, haurdun dauden emakumeei edota gaixotasun kroniko bat dutenei zuzendua dago. Argazkia: Goiena.

KANPAINA, MARTXAN

"Anbulatoria gerturatuta informazio gehiago eskura dezakezue. Edo 943 36 15 43 / 943 36 20 13 telefonoetara deituta"

estaldura-tasa onak lortzen badira ere, tasa horiek hobetzen ahalegintzen gara, guztiz onuragarria baita hiritarrentzat orokorrean, eta batez ere,

txertaketaren jomuga diren pertsonentzat. Are gehiago, gaur egungoa bezalako unean, non, egoera epidemiologikoa nahasia den", Udaletik adierazi dutenez.

380.000 txertu guztira

Martxan den kanpainarako 380.000 txerto prest ditu Eusko Jaurlaritzak. Anbulatoria gerturatuta informazio gehiago eskura dezakezue. Edo 943 36 15 43 / 943 36 20 13 telefono zenbakietara deituta bestela.

Odol ematea, azaroaren 2an

Bueltan da bi hilabetea behin herritarrei egin ohi zaien deialdia. Hainbat lagunek hain beharrezkoa duten odola emateko egunaz ari gara. Usurbilgo Odol Emateen Elkartek finkaturiko hurrengo hitzordua, azaroaren 2an, 18:00-20:30 artean anbulatorioan.

Hosto haizagailu berriak ditu Udalak

"Hainbat kexa jaso ziren Udaletan garbiketa zerbitzueta-rako Udal Brigadak erabiltzen zituen hosto-haizagailuek zarata handia ateratzen zutela-eta. Zarata hori saihesteko, makineria berria erosi du Udalak. Azken belaunaldiko makinok erosita, kale garbiketa zerbitzua hobetzeaz gainera, usurbildarren erosotasuna eta atseden-eskubidea ere bermatuko ditu, langileen lan baldintzekin batera, hauentzat ere deserosoa baitzen haizagailuen zarata", Usurbilgo Udaletik berri eman dutenez.

315 langabetu irailean

Abuztuan gorantz egin bazuen, zertxobait behera egin du Usurbilgo langabezia-tasak irailean. 315 langabetu zenbatu zituen Estatuko Enplegu Zerbitzuak udalerrri honetan, abuztuan baino 7 langabetu gutxiago. Erdi eta erdi, 157 langabetu gizonezko eta 158 langabetu emakumezko guztira.

Kontratazioa ere bere horretan mantendu da. 4 lan kontratu gutxiago erregistratu dira Usurbilen, 393 guztira. Ia denak, 379 aldi baterako eta 299 zerbitzuen sektorean. Nabarmen igo dena emakumezkoen kontratazioa izan da. Abuztuan gizonezkoen kontratazioak emakumezkoena bikoizten bazuen, irailean erregistraturiko 393 lan kontratutik 185 emakumezkoenak izan dira.

“Gehiago ezagutzen da gure diskapazitateak”

“Gehiago ezagutzen da gure diskapazitatea, gure gaitasunak baino”, argi asko zioen Enrike Amilibiak, Atzegi Elkartearen eskualde mailako kanpaina berria aurkezteko, urriaren 14an Potxoenean ospatu zen ekitaldian. Kanpaina berriak, adimen urritasuna duten lagunen bizimodua ezagutaraztea sustatu nahi du.



Urriaren 14an aurkezpen ekitaldia antolatu zuten Potxoenean, eta kanpaina berriaren nondik norakoak azaldu zituzten.

Zuetako askori ezaguna egingo zaio Enrike Amilibia. Irailaren 18an, 7. Topa Eszenikaren baitan estreinatu zen #Kilometroak15-en aldeko “Jendartean bidaide”, Alex Tello herritarrek sortu eta zuzenduriko antzerki inklusibo arrakastatsuan parte hartu baitzuen Enrikek. Antzezlanarena ekimen aberasgarria izan da berarentzat. Eta halako esperientzia inklusibo gehiago sustatu beharko liratekeela uste du, “pertsonak ezagutu eta beraien gaitasunak bultzatzeko”.

Diskapazitatearen gaia, “sektore guztietan landu beharko litzateke, normaltasun batean ikusteko”, zioen Enrikek Potxoeneko aurkezpen saioan.

GAINERAKOAK BEZALA

Diskapazitatearen gaia, “sektore guztietan landu beharko litzateke, normaltasun batean ikusteko”, zioen Enrike Amilibiak Potxoeneko aurkezpen saioan.
“Kromosoma bat gehiago dugu, hori da dugun ezberdintasun bakarra. Gainerakoan, bizimodua gainerakoek bezala egin dezakegu”

Hizlari trebe askoa da Enrike, bezperan unibertsitatean eta urriaren 14an iaotasun handiz jardun zuen jendaurrean Potxoenean. Bere diskurtsoan argi

zioen. Down sindromea duten eta ez dutenen arteko ezberdintasuna, “kromosoma bat gehiago dugula da, hori da dugun ezberdintasun bakarra. Gainerakoan, bizimodua gainerakoek bezala egin dezakegu”.

“Denok dugu tokia bakoitzak beretik emateko”

Enrikeren alboan zen Alex Tello. “Jendartean bidaide” bezalako esperientzien beharra esparri guztietan dagoela azpimarratu zuen, eta gogorarazi zuenez, halako ekimen inklusiboetan “denok dugu tokia bakoitzak beretik emateko”. Elkar ezagutu, elkar lagundu, elkarrekin lan egin

eta ikasteko aukera, “inor baztertu gabe”. Duela hilabete estreinaturiko antzezlanak horretarako guztirako aukera eman ziela zioen Tellok.

Azkenean, lagun talde inklusibo eta anitza osatzekoa. Honakoa, esperientzia berria izan da Tellorentzat. Bizipen pozgarri eta aberasgarri jositakoa. “Inklusibitatearen antzezlanak ate bat ireki dit. Eskertua sentitzen naiz, lagun berriak egin ditut”, aurkezpenean zioenez. Taldeak, antzezlanarekin batera inklusibitateaz eta elkarmendekotasunaz diharduen bideoklip bat ere grabatu zuten Udarregi Ikastolako eraikin berrian. Potxoeneko aurkezpen ekitaldian proiektatu zuten. Youtuben ikus dezakezue.

“pazitatea, gure gaitasunak baino”

Gure kaleetan Atzegiren kanpaina berri honen kartelak nonahi ikusiko ditugu egunotan. Kartelak pegatzeaz arduratuko da, Atzegik Usurbilen duen taldea. Potxoe-neko ekitaldian parte hartu zuen. Kanpainarekin bat eginenez, adimen urritasuna duten pertsonen bizimodu normala egiten dutela aldarrikatu nahi izan zuten. Ekitaldian bertan ziren Enrikeren eta Luis Mari, Olaia edota Josetxo usurbildarren bizimoduak jarri zituzten adibide gisa.

“Oraindik aurreiritzi eta estereotipo faltsuak existitzen dira”

“Bizitza normala egiten dute, gainerakook egiten dugun modukoa. Hori nahi da adierazi aurtengo kanpainan”, zioen, Mariaje Astigarragarekin batera Izaskun Maizek Atzegik



Kolektibo honen inguruko aurreiritziak gainditu nahi dira kanpaina berriarekin.

IZASKUN MAIZ

“Bizitza normala egiten dute, gainerakook egiten dugun modukoa. Hori nahi da adierazi aurtengo kanpainan”

Usurbilen duen taldeko ordezkariak.

Eta horretan sakondu nahi dute aurren, lagun guztion bizimoduak ezagutzera eman nahi dituzte. Atzegik, “adimen urritasuna duten pertsonen bizimoduaren inguruan dagoen ezjakintasunean eragin nahi du. Oraindik kolektibo honen inguruan aurreiritzi eta estereotipo faltsuak existitzen dira, bai euren jarrera (maitagarriak dira, haurrak bezalakoak dira,

ez dute iritzi propioa, ...) baita euren bizimoduari dagokionez ere (ez dute lanik egiten, ez dira dibertitzen, ez dute lagunik, ...)”. Atzegitik, kanpaina partehartzaile eta ausart honen bitartez, aurreiritzi eta estereotipo hauek apurtu eta Gipuzkoa osoari kolektibo honen errealitatea hurbildu nahi dugu. Oso kolektibo anitza dela, eta beste edonorrekin gertatzen den bezala, baliagarria den eredu bakarra ez dagoela azpimarratu nahi dugu”, diote Atzegitik.

Gogoan izan, ospatu berri dugun #Kilometroak15 ekimeneko ardatzetako bat izan dela inklusibitatearena. Atzegik ekainean aurkeztu zen Gipuzkoa inklusiboago baterako dekalogoarekin bat egin zuen.

Informazio gehiago:
atzegi.org

Bizimoduak ezagutzeko gonbita

Jendartean bidaide antzezlanaren atzean dagoen taldeko kideen bizimoduak ezagutzeko aukera izan du Tellok, Enrikerena tartean. Gu ere horretara gonbidatzen gaitu aurren Atzegi Elkarteak. Adimen urritasuna duten pertsonen osatzen duten kolektiboa hobeto ezagutzera. Haien errealitate anitzaz, euren eguneroko bizimoduaz, euren gaitasunez jabetzera animatzen gaituzte.

Dena dakigula uste izan arren, ziur ezusteko bat baino gehiago emango dugula. Sartu bestela, atzegi.org/horrelakoadanirebizitza/ atarian. “Ezetz asmatu?” erronkan parte hartzera animatzen gaitu Atzegik; zenbait lagunen bizimoduei buruzko galdetegi batetaz. Ia zenbat galdera zuzen erantzuten ditugun.



Sare sozialetan, #HorrelakoaDaNireBizitza traolarekin argazkiak bidaltzeko kanpaina abiarazi dute.

Erronkarako baliatu duten ize-na, abiatu berri duten kanpaina berrirako Atzegik hautatu duen leloa da aldi berean.

Jolas honez gain, adimen

urritasuna duten lagun guztietei, #HorrelakoaDaNireBizitza traolarekin argazkiak bidaltzera animatzen dituzte, “Gipuzkoako gizarte osoari euren

bizitza nolakoa den kontatzeko. Argazki hauek Twitter, Facebook eta Instagramen bitartez edo WhatsApp-eko 609 703 706 zenbakira bidaliaz”.

Asier Azpiroz, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final laurdenetan

Final laurdenetarako sailkatu zen Asier Azpiroz Iztueta urriaren 11ko Andoaingo saioan. Final laurdenen fasea asteburu honetatik azaroaren 8ra luzatuko da. Larunbat honetan, 17:30ean Urretxu-Zumarragako Ederrenan jokatuiko den final laurdenetan parte hartuko du; zubietarrak lehiakide izango ditu, Agin Laburu Rezola, Beñat Iguaran Amondarain, Elixabet Pagola Apezetxea, Jexux Mari Irazu Muñoa eta Nerea Elustondo Plazaola.

Finala, abenduaren 19an

Larunbateko emanaldirako sarrerak salgai dituzue bertsoarrerak.eus atarian. Baita final handirako ere. Finalaz ari garela, Espainiako Gortetarako hauteskundeak abenduaren 20rako deitu dituzte. Gipuzkoako Bertsolari Txapel-



Larunbat honetan, Urretxu-Zumarragan kantatuko du zubietar bertsolariak.

ketako azken saioa ere egun horretarako antolatua zegoen. Hauteskundeak tarteko, Bertsozale Elkartek abenduaren 19ra aurreratu du final handia, 17:00etan hasiko da Donostiako Illunben. 8 bertsolari bilduko dituen finaleko sarrerak aipatu web orrialdean eta Gipuzkoan zehar hainbat gunetan egon-

go dira salgai, azaroaren 20ra arte. Usurbildik gertuen; Lasarteko Jalgi, Hernaniko Tri-pontzi eta Andoaingo Ganbara tabernetan. Edota Donostiako Hontza eta Andoaingo Enaitza liburu dendetan. Prezioak: gaztetxoek 10 euro, Bertsozale Elkarteko bazkideek 15 eurotan eta gainerakoena 20.

Badator Artisautza Azoka

Arrakastatsua suertatu da azaroaren 1erako antolatzen ari den Artisautza Azokan postuak jartzeko, Aitzaga Elkartek egin duen artisauei zuzenduriko izen emateko deialdiak. Urriaren 10era arte finkatu zuten epearen baitan, 60 eskaera inguru jaso zituzten. Aurkeztu diren artisau guztion artean aukeraketa egin behar izan dute, azoka frontoian ospatzea nahi baitute, eta noski, lekua mugatua da. Guztira, 30 postu inguru izango dira.

Buruhandiak lantzeko tailerra

Karetak egiteko tailerra antolatu du Txirinbolo saltokiak eta Usurbilgo Erraldoi eta Buruhandien Konpartsak urriaren 31rako, 17:00-19:00 artean frontoian. Beharrezko materiala bertan banatuko da. Haur nahiz gazteei zuzenduriko hitzorduan konpartsa kideak bertan izango dira. Ekimen aproposa, konpartsa dinamikan murgiltzeko.

Ordutegi gehiago eskuratu nahi badituzu, hemen aurkituko dituzu:

- * NOAUA! * Udaletxea
- * Kiroldegia * Saizar
- * Eroski City * Aginagako Arrate taberna * Zubietako Alamandegi taberna

Edo deskarga ezazu www.noaua.com-etik!

noaua

tren eta autobus

noaua !ordutegia 15/16

IRATXO TABERNA
Borda Berri 5, USURBIL

URRIAREN 28an...asteazkena
INAUGURAZIO BERRIA!
19:00-21:00

Denok gonbidatuak zaudete, Usurbilgo jendea bereiziki gure tabernara.
Giro ona ziurtatuta dago!
Eskerrik asko, itxaroten zaituztegu!

Errigoratik Erribera laguntzeko ordua

Bueltan da, "Nafar hegoaldeko uzta, euskarari puzka. Hartu eta eman" izeneko Errigoraren elkartasun kanpaina berria. Nafarroa hegoaldeko tokiko produktuak gure artean saltzearen truke, jasotakoaren %25a zonalde hartako euskalgintza laguntzera bideratuko duen ekimena martxan da aurten ere. "Bertako 15 ekoizleren primerako produktuekin bete dugu aurtengo otarra. Barietatea eta kalitatea denon eskura!", adierazi digute antolatzaileek.

Saskiok 50 eurotan eskuratu daitezke. Eskaerak egiteko epea zabalik dago azaroaren 8ra arte, Usurbilen egitasmoarekin bat egin dugun NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan, Aizpurua Okindegian, Lizardi liburu dendan, Kaffa kafetegian eta Txiriboga, Artzabal eta Bordaxo tabernetan. Gune guztio-tan, eskaera orriak eskuragarri dituzue. Zuen datu pertsonalekin bete eta bertan utzi. Otarrak heltzen direnean, eskaera bideratu duzuen herritarrokin hartuemanetan jarriko gara.

Produktuak, ekoizleak

- Ardo beltz botila (Azpea, Lezaun edo Mendiko).
- Litro erdiko oliba olio birjina estra botila (Bardea, Castillo de Ablitas, Ekolo edo La casa del aceite).
- Melokotoia almibarrean (Almanaque).
- Orburuak (Ebron edo Maria



Hiru egitasmo lagunduko dira: Lodosa eta Vianako ikastolen biziraupena, Erriberako AEK eta D eredua Nafarroa osora hedatzea.

Jesus).

- Potxak (La Churta edo Maria Jesus).
- Kardua (Maria Jesus edo Pedro Luis).
- Mahats zukua (Ekolo).
- Almendrak (Ntra. Sra. del Rosario).
- Pikillo piper ontzi txikia (Iturri).
- Pikillo piper ontzi handia (El Escolar edo Meleta).
- Zainzuriak (Iturri).
- Melokotoi marmelada (Pedro Luis).
- Pikillo piper untapana (Almanaque).

3 proiektu lagunduko dira

Otarrok erosiz, Nafarroa hegoaldeko euskalgintza lagunduko dugu. Hiru proiektuetara bideratuko da hain zuzen, jasotako laguntza guztiaren laurdena:

- Lodosa eta Vianako ikastolen biziraupenera.

■ Erriberako AEKra.

■ D eredua Nafarroa osora hedatzeko ekimenetara.

Indartzen doan kanpaina

2012. urtean bi baino ez ziren, 5 urtebeteren buruan, 10 iaz eta aurten 15 guztira, Errigoraren elkartasun kanpainan parte hartzen ari den ekoizle kopurua. Ekimena nola hazi den erakusten duen datu esanguratsuetako bat dugu honakoa. Baina ez bakarria.

Duela hiru urte egitasmoa martxan jarri zenetik, 300.000 euroko laguntza bideratu da Nafarroa hegoaldeko euskalgintzara, milioi eta erditik gorako fluxu ekonomikoa eragin du euskal lurraldeen artean, 15.000 etxe inguruk bat egin dute kanpaina hauekin, 370.000 kontserba ontzi banatu dira eta 88.000 litro olio. Iaz 79 otar saldu ziren Usurbilen.

Informazio gehiago: errigora.eus

Argazkia aterako da, azken ostiraleko elkarretaratzean

Euskal presoan eta senideen eskubideen aldeko hileroko elkarretaratzea urriaren 30ean izango da, 20:00etan Mikel Laboa plazan. Azken ostiraleko mobilizazioa, ohi bezala, Usurbilen Nahi Ditugu bilduneak deiturikoa dugu. Elkarretaratze amaieran, Patxi Uranga presoaren urtebetetze eguna gertu dagoenez jada, bere zorion agurrerako argazkia aterako da.

Aitzaga, ixteko erabakiaren zain

Sei urtez itxita egon zen lehen. Orain berriz ixteko aginduaren zain da Aitzaga. "Erasoak ez du etenik eta Hego Euskal Herriko beste ehun elkarrekin baina gehiagorekin batera, Aitzaga Madrildik, ixteko erabakiaren zain dago", ohartarazten dute Aitzagatik. Halere, "egoera eroso ez izan arren", elkarteko kideek lanean jarraitzeko asmo argia dute. "Nahiz eta lehen sei urtez elkarrekin itxi ziguten, orain ere berdin egingo diguten mehatxupearan egon, azokak aurrera darrai eta erronkari eutsiz, urtero bezala hor izango dugu guztion ikusgarri", Aitzaga Elkarteko esanetan.

Azaroaren 1eko azokara bertaratzeko gonbita luzatzen dute. "Egun horretan erasoari aurre egin eta goizeko 11:00etatik aurrera herriko plazan izango garen ez, ikusi eta erosketak eginez gozatu ezazue". Artisanu postuen artean, herriko gaztain egile koadrila bertan izango da, eta adi, baita talogileak ere. Usurbilgo talogile taldea eraberritu dute, eta tradizio luzeari segida emango diote.

txirriStra

TABERNA



-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

“Dominike artzainaren itzala”

Usurbil eta Urdiñarbe herriek harreman berezia estutu dute azken urteotan. Senidetze horretan, garrantzitsuak izan dira Dominike Agergarai eta beste hainbat eta hainbat lagun. Gaixotasun batek eraman du asteon Dominike Agergarai. “Bere irrifarra, gauzak alai ikusteko ikuspegia, kantuarekiko atxekimendua, gurekin emango ditugu”, Iñaki Agirresarobek lerro hauen bitartez aditzera eman digunez.

“Urdiñabetar Dominike Agergarai joan zaigu Orhiko eta Ahüzkiko magaletatik. Bere kantua, bere Xiberoko kulturarekiko maitasuna, pilotazetasuna, lurraldetasuna, eskuzabaltasuna gurekin utzi ditu. Bera izan da Xiberoa zer den ulertarazteko, harremanak sortzeko, Hegoaldea eta Iparraldeko langa hautsarazteko, kantuaren doinuaz gozarazteko... Itzal handia utzi digu oraindik hankekin lurra zapaltzeko zoria dugunontzat. Dena den, bere irrifarra, gauzak alai ikusteko ikuspegia, kantuarekiko atxekimendua, gurekin emango ditugu. Usurbilek eta Urdiñarbek 20 urteko senidetzan lotura trinkoak dituzte eta beste hainbestetan jarraitzeko itxaropena dute. Eskerrik hanitx, Dominike!”



Aste honetan zendu da Dominike Agergarai.

Igande goizaldean ordu aldaketa

Akabo uda giroa, udazken betean gara eta hel-du da, neguko ordutegira egokitzeko unea ere. Erlojuak ordubete atzeratu beharko ditugu as-teburuan. Igande goizaldeko 03:00etan 02:00ak izango dira. Ordubete gehiago beraz, parrandarako nahiz lotarako.

2016ko lan egutegia

Bi jai egun berri izango ditugu 2016an, urte garai honetan. Bat urriaren 7an, lehenengo Eusko Jaurilaritza osatu zeneko 80.urtemuga egunez. Irailaren 9a ere jai eguna izango dugu, uztailaren 31 igandez egokituko baita. Gainerakoan, aurreko urteetako jai egunak izango ditugu:

- Urtarrila: 1,6.
- Martxoa: 24,25,28.
- Maiatza: 1.
- Uztaila: 2,25.
- Abuztua: 15.
- Iraila: 9.
- Urria: 7,12.
- Azaroa: 1.
- Abendua: 6,8,25.

Gipuzkoako Txapelketa

Urriak 23 ostirala Usurbilen, 19:30ean

Kadete 3. mailan:

PAGAZPE 2 (Eneko-Alain)
GAZTELEKU (Andoain)

Kadete 2. maila:

PAGAZPE (Jon Zumeta-Aimar Iruretagoiena)
ALOÑA MENDI 2 (Oñati)

Nagusiak 2. maila:

PAGAZPE (Haritz Lertxundi-Asier Katalina)
ATZAPAR (Asteasu)

Urriak 24 larunbata Usurbilen, goizeko 10:00etan

Nagusiak 1. maila:

PAGAZPE (Xabier Urbietia-Ander Quina)
AZKOITIA

Nagusiak ohorezko maila:

PAGAZPE (Xabi Santxo-Aitor Gorrotxategi)
AURRERA SAIAS 2(Tolosa)

Futbola Haranen

Urriak 24, larunbata

09:00 Benjaminak: Lagun artekoa.
11:00 Alebin mutilak:
Udarregi 5A-Urnieta 5B
Udarregi 6A-Urnieta 6B
12:00 Infantil neskek:
Usurbil F.T.-Amara Berri K.E.
17:00 Preferente mailako taldea:
Usurbil F.T.-Ikasberri K.E.

Urriak 25, igandea

10:30 Kadeteak: Usurbil F.T.-SANSE A

Eskubaloia, selekzioa

Urriak 25, igandea

15:40 Kadete nesken entrenamendu saioa Getxoko Fadura Kiroldegian. Usurbil K.E.-ko Nahia Marcos Huici deitu dute hitzordura.
15:40 Jubenil mutilen entrenamendu saioa Elgoibarko IMH Kiroldegian. Usurbil K.E.-ko Imanol Furundarena deitu dute hitzordura.
17:30 Jubenil nesken entrenamendu saioa Elgoibarko IMH Kiroldegian. Usurbil K.E.-ko Ane Retolaza Mantxinandarena deitu dute.
17:30 Kadete mutilen entrenamendu saioa Getxoko Fadura Kiroldegian. Usurbil K.E.-ko Jon Uli eta Julen Nazabal deitu dituzte.

Usurbil KEren errifa zozketa

Urriaren 17an eginiko errifa zozketako zenbaki saritua, 3031 izan da. Sarituari, Bruñoren mariskada lotea egokitu zaio.

Azenario galanta

Galanta da, begi bistan denez. Ikusi zer nolako azenario puska hazi duten Zubietako Zugasti etxekoek. Hosto eta guzti iruditan duzue. Kilo erdi pisatzen du. Pieza ederra.



Herritar txartelaren izena eta irudia hautatzeko lehiaketa

Usurbil Herritar Txartela abian jartzea adostu dute Usurbilgo Udalak eta Hurbilago Elkar-teak, Nafarroako Rural Kutxarekin lankidetzan. Izena eta irudia hautatzeko lehiaketa jarri da martxan. Informazio gehiago hurbilago.com, usurbil.eus edo udaletxean jasoko duzue.

Oparo dator azaroa mendizaleentzat



Alegia-Lekunberri mendi irteera antolatu dute azaroaren 8rako.

Igandean Uharte-Arakil-Goldaraz, 20 kilometroko bidea osatu zuen mendizale talde duzue ondoko irudian. Andatza Mendizaleen Kirol Taldeak urrirako antolatu duen txangoa izan da.

Hurrengo, mendizaleentzat ekitaldi aldetik oparoa izango den azaroan. Ohi baino ekitaldi gehiago antolatuko baitituzte Andatza M.K.T.-koek hurrengo asteetan. Hasteko, hileroko txangoa aza-

roaren 8an; Alegia-Lekunberri mendi irteera. Eta hilabete amaieran, Mendi Astea ospatuko da azaroaren 26tik 28ra.

Irudia eta informazio gehiago: andatzamendizale.info

Paleta ikastaroko izen-ematea luzatu dute

Urriaren 29ra arte. 16 urtetik gorako emakumeei zuzenduriko ikastaro honetako saioak astean hirutan izango dira frontoian. "Aurtengoan, berrikuntza bezala, entrenamendu saioen iraupena izango da. Ordubetekoak izatera pasa dira", antolatzailiek berri eman dutenez. Orduotan izango dira entrenamendu saioak:

■ Astelehenetan, 20:00-21:00 artean.

■ Asteazkenetan, 09:30-10:30 eta 20:00-21:00 artean.



16 urtetik gorako emakumeei zuzendua dago ikastaroa.

Ikastaroa azarotik maiatzera luzatuko da. Pagazpe P.K.E., Emakumea Pilotari eta Usurbilgo Udalak anto-

latutako ekimenean izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko: 943 372 498 / kirola@usurbil.eus

"Boulderra" martxan jartzeko bilera

Oiardo kiroldegiko boulderra lehenbailehen martxan jartzeko, "bilera egin nahi da interesa duen guztiekin; horretarako, datorren astelehenetan, urriak 26, 19:00etan Oiardo kiroldegian, hitzordua jarri da, boulderra montatu behar duenarekin", hala esan digute Usurbilgo Udaleko Kirol Sailetik.

Eskubaloia Kiroldegian Urriak 24, larunbata

09:30 Alebin neskak, Buruntzaldea: Udarregi 5B-Udarregi 5A
09:30 Alebin neskak, Buruntzaldea: Udarregi 6C-Urnieta 5
10:30 Alebin neskak, Buruntzaldea: Udarregi 6A-Langile
10:30 Alebin neskak, Buruntzaldea: Udarregi 6B-Urnieta 6
11:30 Infantil neskak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi A Usurbil-Bidasoa B
12:45 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi B Usurbil-Leizaran B
15:45 Kadete mutilak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Indautxu
17:30 Jubenil mutilak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Indautxu

Urriak 25, igandea

10:00 Senior neskak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Egia Arrano Elkartea.
11:30 Kadete neskak, Gipuzkoako Txapelketa: Usurbil K.E. "B"-Urnieta Adarra Aroztegia

Alegazio epean da Usurbil KEren

hauteskunde batzordea

2016. urte hasierarako zuzendaritza berritu asmo du Usurbil KEk. Horregatik, hauteskunde prozesu betean da jada. Urriaren 13ra arte hauteskunde batzordea osatzeko hautagaiak aurkezteko epea zabaldu zuten. Urriaren 28ra arte hauteskunde batzordeari alegazioak aurkezteko epea zabaldu dute orain. Tarte horretan, egongo balira, alegazioak erantzun eta aipatu batzordea behin betiko eratzeke bilkura egingo da. Azaroaren 1ean, behin behineko hauteskunde errola argitaratuko dute, eta aipatu erroldaren aurka helegiteak aurkezteko epea zabalduko da gero, azaroaren 15era arte.

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5


ARRANDEGIA PELLO
PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

ETXETRESNEN KONPONKETAK
Moduz, azkar eta prezio onean
MARKA GUZTIAK

645417665
XABIER
Usurbil

ALDAMU

KONPONKETAK
KALE NAĞUSIA 10- atzekoaldea
943 372 795

ETXEBIZITZA

Salgai

Txaramunto kalean etxebizitza salgai. Hegomendebaldera begira. 98 m² + balkoia, egongela/jangela eta sukaldea. 3 gela. 2 komun. Garajea eta trastelekua aukeran. Iker (686912979)

Atikoa Zubietan, 110m² erabilgarri. 2008-an guztiz berritua, teilatuaren estruktura ere. 3 logela handi, 2 komun, 30 m²-ko egongela. Haize egokitua. 225.000. 669781959 Julien

Pisua salgai Santuenean. Egoera onean. 3 logela, sukaldea, komuna eta nahi izan ezker garaje moduko batekin. 659 460 979.

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehenez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Usurbilen edo inguruan eraikigarria den lur eremua erosiko nuke. 636393237

Pisua salgai, Artzabalen. 3 logela, 2 komun, terraza eta trastelekua (altzariekin) eta garajea (2 kotxerentzat). 657 771 126

Etxea salgai (Kutxa gainean). 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, trastelekua. Dena kanpoaldera. 607 572 106

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukaldea. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaiaigan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m². Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, eskilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrrak doakoak dira. Telefonomoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

salbu gela guztiak ditu kanpora: 90.000 euro. 646344847

Etxebizitza salgai Zubietan. 1.Esk. 118 metro koadro, baratza 2.500 m eta oilategia 140 m. Erreformak egiteko. 200.000 euro. 616. 649 674 Jabier.

Pisua salgai edo alokairuan Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Iñaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetatan

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Alokairuan

Alokatzeko pisu bila nabil. Telefono zenbakia: 615730680

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

2 lagunentzako alokairuko pisu bila. Beheto solairua eta terrazaduna bada hobe. 610 73 59 64.

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona. 657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737

Pisu baten bila nabil, txikia eta merkea. Txakurra daukat. 682 214 506.

Emakume bat gela baten bila dabil partekatzeke 17:30-18:30 deitu (Marisol). 674463942

MOTORRA

Salmenta, garajeak

Baju komertzial bat salgai erdiko kalean. 62 metro koadro, solairu batekin. 600 369 013 / 943 371 827

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Errekaxiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Motorra uzteko izango litzateke. 645720571

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro karratukoak. Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Txapeldun taberna alokairuan edo salgai: 676 976 005.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Emakume bat eskaintzen da, goizez, 2 edo 3 orduz etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 620 625 823.

Emakume bat eskaintzen da asteburutan pertsona helduak zaintzeko. Tel. 646 756 555.

Neska gazte euskaldun bat haurrak arratsaldetan zaintzeko prest eskaintzen da. Esperientziaduna haurrak zaintzen eta udalekuean. Tel. 661 626 500. (Maialen)

Mutil gazte bat LH eta DBH-ko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. Tel. 617 916 242. (Oinatz)

Lan bila nabil. Edozein lan egingo nuke. Interna moduan ere bai. Umeak edo helduak zaintzen, garbiketa lanak egiten, jatetxeren batean harraskako garbiketarako egiten, etab. Tel. 676 188 411

Pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke asteburutan. Esperientziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da propaganda edo gutunak banatzeko. Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak zaintzeko, baserriko lanetan ari-tzeko edota edozein lanetarako. Interno moduan lan egiteko prest. Tel. 662 286 266.

Lan bila nabil. Interna moduan eta umeak zaintzen. Tel. 645 530 490

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketetan. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegiko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak

zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituluduna eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mutila, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan edo nahi den bezala. Badaki etxeko lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen esperientzia asko duen mutil bat, lan bila dabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel. 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperientzia askorekin. Gomendio askorekin. 638 602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Latina, frantsesa, ingelesa, euskara klaseak ematen dira, etxean. Ekonomikoa. 600766068

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 urteko esperientzia. 682 214 506.

Lan bila nabil. Garbiketetan, plantatzeko eta interna moduan ere bai. Larunbat, igande eta jai egunetan ere prest nago. 676 188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Pertsona helduak gauetan zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Erizain laguntzaile bat eskaintzen da esperientziarekin. Pertsona heldu ezinduek edo amaieran dauden pazienteak zaintzeko. Etxean zein egoitzetan. 943 365 079 / 635 715 142.

Neska bat eskaintzen da garbiketarako egiteko, pertsona helduak zaintzeko... Esperientzia, erreferentzia eta papelak. 618 889 530.

Lan bila nabil. Orduka, umeak



Zorionak amona eta aitona! Dagoeneko 60 urte ezkondu... hori da pazientzia zuena!! Pixkanaka-pixkanaka kuadrila polita osatu duzue, eta baita ederki ospatu ere! Muxu handi-handi bat etxekoan partez.



Zorionak Hegoa! Ederki itzali hunan kandela hire lehen urtebetetzeari, urriaren 16an! Zorionak Hegoa!!



Zorionak Victor! Urriaren 23an 3 urte! Muxu asko etxekoan partez!



Zorionak preziosa! Urriaren 18an 7 urte bete dituzu eta ondo ondo ospatu duzue lakoan gaude. Muxu potolo potoloak zure familiaren partez.



Zorionak Ana! Urriaren 23an zure urtebetetzeari izango da. Ongi ongi pasa zure eguna eta muxuak. M^a Angeles Arruti.



Zorionak Eneko!!! Urriak 12an 10 urte bete zituen Eneko. Zorionak etxeko guztien partez. Muxu haundi asko!!!

Heriotzak

Elisa Rolin Cantero

75 urterekin hil zen Durangon, irailaren 29an



Berak nahi zuen moduan Usurbilgo Parrokian meza bere arimaren alde. Urriaren 25ean 12:00etan.

edo helduak zaintzen, etxeko lanak egiten... Interna moduan ere bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Lan egingo nuke. Garbiketari... orduka. Gauetan pertsona helduekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest nago. Tel. 676 188 411.

Emakume euskalduna eskaintzen da ume txikiak zaintzeko edo garbiketari egiteko. Irailetik aurrera. Arduratsua. 671 547 567.

Mutil gazte bat eskaintzen da, ingelesa, frantsesa, latina, filosofia emateko. Merkea. 600 766 068. Jokin

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile titulua. 688826968.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen prest. Interna bezela ere. Edozein ordutegi. 608299579

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientziarekin. 722 575 781.

Pertsona helduak zaintzen edo garbiketari lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientzia eta paperekin. 690146067.

Mutil bat lan bila dabil helduak zaintzeko edo baserrian lan egiteko. 690146067.

Interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen. Esperientzia daukat. Ezagutza, sukaldaritza, garbiketari... 604148284.

Lan bila nabil. Esperientzia sukalde laguntzaile bezala, zerbitzari bezala, garbiketari, karga eta deskargari, frutadendari... 663 447747.

Lan bila nabil, orduka edo interna moduan. Garbiketari lanetarako edo helduak zaintzeko. 631 277 061

Gidabaimen guztiak ditut, baita garabi eta orgatilara ere. Lan prebentzioko ikastaroa daukat. Esperientzia altua. 657 535 299.

Lan bila nabil. Interna moduan

nahiago. Esperientziarekin, eta paperekin egunean. 680 804 124.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Xiomara. 631 193 521.

Emakume euskalduna gertu interna joateko moduan. Klinika laguntzaile titulua. Tel. 688 826 968. Deitu: 17:00 - 19:00, eta larunbata 15:00 - 19:00.

Neska, garbiketari lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 631 333 251

Neska, garbiketari lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 653 620 770

Neska, garbiketari lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta

erreferentziarekin. 672 740 521

Pertsona helduak zaintzeko, interno eta orduka. Gauak etxean edo ospitalean pasatzeko. Esperientziarekin. 648 761 874.

Paperak ongi dituen neska bat lan bila dabil, etxeko lanak egiteko, orduka. Esperientzia handia. Erreferentziarekin. 638 602 597.

Neska euskaldun batek lan egingo luke arratsaldetan, 4 ordu, helduak zaintzen. 626 735 354.

Emakume bat lan bila dabil etxe batean bere seme-alaba gazteekin bizitzeko. Lasarte edo Usurbilen. 689 344 946.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka... Paperak ongi eta erreferentziak (umeak zaintzen, garbiketari eta ostalaritza) 698 322 406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo garbiketari industrian. Paperak

ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketari lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularrak emateko prest. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu interna bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile titulua. 619511789 / 943 760418.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, sukaldeko laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketari edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

BESTELAKOAK

Giltza batzuk galdu dira, erdigunean. NOAUA!n edo Udaltzainguan uztea eskertuko nuke.

Bosch markako garbigailu bat salgai. Urte bete pasatxo dauka. Berri berria dago. Tel. 943 363 201.

Irailaren 9an, arratsaldean, Zubietako Lertxundi gainan aurkitu ditut betaurreko batzuk. Berreskuratzeko deitu Euxebiori: 943362665.

3 katu oparitzen ditut, 3 hilabete eta erdi dituzte. Tel. 688 827 995.

Haur-sila bat salgai. "Bebe confort" marka LA modeloa. Beltza eta berri-berria dago. Burbuja eta eguzkitakoarekin. 666 373 665.

Giltza batzuk galdu ditut DIA supermerkatu inguruan. Diru-zorro beltz batean, eta 4 giltzekin. Aurkitu badituzu udaltzaingora eramatea eskertuko nuke.

Artzabal inguruan gitarra bat galdu dut. 608 566 683.

Hiru plazako eta bi plazako sofak salgai, larruzkoak, egurrezko ertzeekin. Egoera onean, 500 euro negoziagarri. usurbil72@hotmail.es

Usurbil, Zubietako edo inguruan, 15.000 m lur saila alokatuko nuke. Enara: 647 438 895

Hemengo urra erosiko nuke. Deitu 634 409 888.

Denborarik ez baduzu zure maskota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. Asteburutan. 688 888 176. Pablo.

Mutil gazte bat prest dago, rotabatorearekin lurra biratzeko eta eskuz buelta emateko lurrari. Prezio ekonomikoa. 610 14 19 40

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Asteleheneretik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Oa botika.....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneako Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaual Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 22 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 23 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Larunbata 24 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 25 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Astelehena 26 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteartea 27 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteazkena 28 RODRIGUEZ Kale Nagusia 42. Lasarte

Urriak 22 - azaroak 1

Osteguna 29 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 30 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Larunbata 31 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 01 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

<https://www.cofgipuzkoa.com/>

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani. 943 55 20 87
22:00 - 09:00

Agenda urria

22 osteguna

- **"Umorea eta politika", Asisko Urmeneta, Olaia Aldaz eta Uxo Anduagaren hitzaldia** Sutegin. 19:00etan.
Antolatzailea: Nafartarrak.

23 ostirala

- **Bateginik erakusketa.** 19:30ean inaugurazio ekitaldia Sutegiko erakustaretoan.

24 larunbata

- **Bateginik erakusketa.** Bisita orduak: 12:00-14:00 eta 18:00-20:00. Igandean: 12:00-14:00.
- **Liburutegien Eguna.** Liburutegira gerturatzaren direnzentzat sorpresa bat izango da.

"Bateginik", inklusibitatea ardatz duen erakusketa

Jose Luis Elexpe Pelex-ek, bere lan artistikoaren ibilbidean, Bateginik erakusketa antolatu du Usurbilgo Udalarekin elkarlanean. Down Sindromea eta inklusibitatea ardatz hartuta prestatutako erakusketa da. Bertan, Sofia Arostegi eta Jose Luis Elexpe "Pelex"en lanak egongo dira ikusgai. Erakusketaren irekiera ekitaldian, Verdini dantza taldeak parte hartuko du.

- Irekiera: urriaren 23an, 19:30ean.
- Tokia: Sutegiko erakustaretoa.
- Ordutegia:
-Ostegun eta ostiralean: 18:00-20:00.
-Larunbatean: 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.
-Igandean: 12:00-14:00.
- Antolatzaileak: Joxe Luis Elexpe "Pelex" eta Usurbilgo Udal.



Sofia Arostegi eta Pelex-en lanak topatuko dituzue.

"Umorea eta politika", ezohiko mahaingurua

- 19:00 Hitzaldia Sutegin: "Umorea eta politika".
- Hizlariak: Asisko Urmeneta, Olaia Aldaz eta Uxo Anduaga.
- Zehaztasunak: "Umorea ospe oneko kategoria da. Zoriona, osasuna, munduko bakea edo maitasuna bezain estimatua dela esango genuke. Hala ere, umoreak ertz asko ditu. Barru-barruraino iristen zaigu, eta zorroztasuna, asmo txarra, minberatasuna edo sentimenduak ditu bidela-gun. Ez beti onerako, gainera. Izan ere, umorea

sarriegi erabili izan da iseka egiteko, barregarri uzteko, mespretxatzeko, zauritzeko... Eta zer gertatzen da kolektibitate, gizarte-talde, herri edota boterearen beraren espazioan kokatzen garenean? Nabarralde Haria aldizkariaren ale bat plazaratu zuen kontu horiei buruz. Orain, gogoeta horretan parte hartu zutenetako batzuk, Asisko Urmeneta, Olatz Aldaz eta Uxo Anduaga alegia, mahai-inguru batean izango ditugu, gai korapilatsu horretan sakontzeko".

Datozenak

Miriam Mendozaren ipuin kontaketa saioa

Euskal ipuin tradizionalak kontatzen ditu baina baita gaur egungo idazle euskaldun zein atzerriarren ipuinak ere.

- Urriak 28 asteazkena, 18:00etan.
- Sutegi udal liburutegian.
- Nori zuzendua: HH4.

Yolanda Arrieta, Aginagan

Haur zein gurasoei zuzenduriko saioa eskainiko du urriaren 28an.

- Urriak 28 asteazkena, 18:15ean.
- Aginagako ludoteka.
- Antolatzailea: San Praixku Guraso Elkarte.

#Kilometroak2015eko eskertza jaialdia

Emaitzak aztertu eta balorazioak egiteko garaia da orain. Baita eskerrak emateko ere. Eskertza eguna antolatu du KMK15-ek azaroaren 7rako, larunbata. Zehaztasun gehiago, datorren astekarian.

VI. Euskarazko Literatura Topaketa

Honakoan, Garazi Kamioren "Orube aban-donatuak" liburua aztertuko dute. Urriak 29 osteguna, 19:00etan Sutegi udal liburutegian. Egilea bertan izango da. Liburuak jada eskuragarri daude udal liburutegian.

BENTA TABERNA

TXOTX! URRIAK 23

TXORIXO EGOSIA EDO BAKAILU TORTILA
+ SAGARDOA

19:30etatik aurrera

ELORZA

O BRAK ETA
ERREFORMAK S. L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com



ORAIN **GIPUZKOA**

Egitze ordua da. Gipuzkoa aktibatzeko ordua, geuri eta gainerakoei zerlarako gai garen erakusteko ordua.

Betidanik egin izan dugu. Historian zehar gauza handiak egin izan ditugu sinetsi eta batu garenean. Beriz egiteko ordua da. Liderrak gara industrian, enpresa-eredu aitzindariak osatu ditugu, i+G+Bn liderrak gara, gipuzkoarrak gara.

Aberastasunak sortzen badakigu, baina baita banatzen ere. Gure lurraz hara, baina Europara eta mundura zabalik. Tinkotasunean sinesten dugu, baina inoiz ez inposaketan. Esfortzua dugu lelo, baina baita elkarlana ere. Estatu mailan liderak gara ongaitasun, ekonomian, gizarte justizian eta berdintasunean. Gipuzkoa gara. Eta

ez dugu zarata handirik egiten. Apaltasunet, lan eginez, arduraz aritzea eta errespetuz jokatzeko. Kexak eta aitakak alde batera utzi behar ditugu. Frustrazioa iraganetik geratu da. Zurrerak iragana dira. Geidirik egotea iraganetik kontua da. Egin dugu jarraitu arazoak bueltara. Hori guztia atzoko gauza da.

Orain buruz hitz egiteko unea da. Etorrituna orain da eta etorkizuna erabakitzeak orain hartu behar ditugu. Gure luna zaintzea orain da. Elkarlana orain da. Lan egitea, laguntzea, elkarbizitzari ekitea, adostasuna orain dira.

Orain da Gipuzkoa.
Eta orain gaur da.



Ofizioen Gida



URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi.euskalnet.net

• ERAIKUNTZAK • OBRAK
• BERRITZE LANAK

Josue
Igeltseritza

Fax: 943 24 34 60
Atallu pol. atallu, 28
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

Telefona
693 059 392

e-posta:
uraitz@uraitz.com

Borda Berri Kalea, 2 3º A
20170 Usurbil. Apartado Correos, Nº 26



ARGILAN
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL



**ESKAIOLA
PLADUR**

Joxean Elorza -USURBIL
699426042



**Antonio
URRUZOLA**
AROSZTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415
Astasuain Industriadena, 3

BARRENETXE
Salsamendi Arregi, Imanol
AROSZTEGIA

943 362 664
Barren Etxe kalea ZUBIETA



**antenas
Telemar**

943 55 33 99
info@antenastelemar.com

Elkano kalea 13, HERNANI



APARICIO
DEKORAZIOA ETA
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943
Puntapax, 13-3.B. 20170 USURBIL



Enrique Alonso
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

**Iñaki
Iturgintza**

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA
ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825

**JOSEBA
ARANGUREN**
ITURGINTZA

943 83 00 72
659 88 39 12



ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

• komertzial instalazioak
• beira bikoitza • segurtasun beirak
• dutxa-itxurak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



URPI Leihok

urpileihok@gmail.com

943 50 80 95 • 688 81 93 33
Nagusia, 10 Trasea • 20170 Usurbil (GIPUZKOA)